

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko urtarrila

## Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Familien konfiantza

5. Enpresarien konfiantza

6. PMI konposatua

Eranskina

### 1. Gizarte Segurantzako afiliazioak marka berri batekin itxi du 2023.

Abenduan, urte arteko aldakuntza tasa % 1,9 izan zen.

### 2. Erregistratutako langabeziak behera egiten jarraitzen du Euskadin.

Abenduan 108.000 pertsona baino gutxiago zeuden langabe gisa erregistratuta.

### 3. Inflazioa %3,4ra jaitsi zen azaroan.

Gasaren eta erregaien merkatzea da bilakaera horren arrazoi nagusietako bat.

### 4. EAEko familien konfiantzak apur bat hobetu zen aurtengo amaieran.

Beraien igurikimenak ezkorak dira, baina 2022an erakutsitakoak baino zertxobait hobeak.

### 5. EAEko enpresak ezkorak dira 2024. urteari begira.

Konfiantza indizearen osagai gehienek okerrera egin dute azken inkestan.

### 6. Euroaren eremuko PMI konposatua egonkor mantendu zen abenduan.

Hileko datuak jarduera ekonomikoaren beherakada txiki bat adierazten du.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

## Gizarte Segurantzako afiliazioak marka berri batekin itxi du 2023


Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,9 hazi zen abenduan, aurreko urteko hil beraren aldean. Horri esker, Euskadik enpleguaren errekor berri batekin itxi zuen 2023, milioi bat kotizazioen gaineratik. Langa hori maitatzean gainditu zen lehen aldiz, baina udako hilabeteetan ezin izan zen mantendu. Urrira arte ez zen milioi bat afiliazio baino gehiago izan, baina ez zen abenduan erregistratutako mailara iritsi.

Afiliazioaren hazkundera askoz handiagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino. Lehenengo kasuan, abenduko urte arteko tasa berriro bizkortu zen, %2,3raino, eta gizonen kasuan, %1,5eraino, egonkortasun handiagoa erakutsi baitute urtean zehar. Igoera horien ondorioz, gutxi gorabehera 490.000 emakume eta 523.000 gizon daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, guztira 1.013.000 afiliazio direlarik.

### GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

ABENDUKO AFILIAZIOA  
**%1,9**




### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektorekako azterketak adierazten du hazkunderik handiena zerbitzuetan lortu dela (%2,2), baina industrian (%1,3) eta, neurri txikiagoan, eraikuntzan (%0,2) ere afiliazioen kopuruak go-ra egin du. Jarduera adarren arabera, hezkuntzan gorakada nabarmena izan da: 4.000 afilia-

## AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



zio berri baino gehiago eta %5,1eko igoera aurreko urtearen aldean. Ostalaritzako (%4,3) eta osasun alorreko jardueretako (%2,1) igoerak ere esanguratsuak izan dira. Bestalde, jaitsierak ez dira oso nabarmenak izan.

### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2022ko abendua	2023ko abendua	Aldakuntza
<b>AFILIAZIOA GUZTIRA</b>	<b>994.077</b>	<b>1.012.947</b>	<b>18.870</b>
Industria manufakturagileak	171.980	174.170	2.189
Merkataritza	135.965	136.477	512
Osasun arloko jarduera	113.007	115.336	2.328
Hezkuntza	80.338	84.425	4.088
Ostalaritza	67.431	70.306	2.875
Administrazio jarduerak	68.588	68.324	-264
Lanbide jarduerak	61.044	62.975	1.931
Eraikuntza	58.183	58.309	126
Administrazio publikoa	50.992	52.105	1.114
Garraioa	44.633	45.886	1.253
Etxeko langileak	29.035	29.094	58
Bestelako zerbitzuak	27.273	27.242	-31
Informazioa eta komunikazioa	25.676	27.184	1.507
Jarduera artistikoak	18.892	19.657	765
Finantza jarduerak	16.815	17.000	185
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.250	11.217	-33
Ur horniketa	6.471	6.507	36
Higiezin jarduerak	4.290	4.372	81
Energia horniketak	1.600	1.750	150
Erauzketa industriak	535	530	-5
Lurraldez kanpoko erakundeak	77	83	5

Iturria: Gizarte Segurantza.



# LANGABEZIA ERREGISTRATUA

## Erregistratutako langabeziak behera egiten jarraitzen du Euskadin

EAEko lan merkatuak sendotasun handia erakutsi zuen joan den urtearen amaieran, hainbat mehatxu egon arren. Hain zuzen ere, 2023ko amaieran 107.779 langabe zeuden, hau da, aurreko urtean baino 3.019 gutxiago. Aldakuntza tasetan, jaitsiera %2,7koa izan zen, aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoa. Hala ere, enplegurik gabeko pertsonen ko-

pururik txikiena da 2008tik, eta, orobat, hirugarren urtez jarraian jaitsi da langabezia. Era berean, beste faktore garrantzitsu bat kontratazioa izan zen; izan ere, lan erreformak enpleguaren egonkortasunerako bultzada eman ondoren, 2023an kontratu mugagabeak lau kontratutik ia bat izatea ahalbidetu zuen.


### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

#### LANGABEZIA ERREGISTRATUA.


ABENDUA

**-%2,7**




### LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Lurraldeei, adin tarteei eta sexuari dagokienez, erregistratutako langabeziaren bilakaeraren emaitzak aztertuta, horietako askoren bilakaera ez da nabarmen aldatu. Hori horrela, berriz ere emakume langabeen kolektiboa da nagusi, eta gazteenak dira kaltetuenak, hainbat hilabetez

## LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



jarraian urte arteko aldakuntza tasa positiba jaso dutelako. Aitzitik, iazko azken hilabete horretan industriako langabeziaren beherakada nabarmendu behar da, abendu batean maila historikorik baxuenean kokatu baitzen iaz.

## LANGABEAK

	2022ko abendua	2023ko abendua	Aldakuntza
<b>LANGABEAK GUZTIRA</b>	<b>110.798</b>	<b>107.779</b>	<b>-3.019</b>
<b>LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA</b>			
Araba	19.000	19.056	56
Bizkaia	62.361	60304	-2.057
Gipuzkoa	29.437	28419	-1.018
<b>SEXU ETA ADINAREN ARABERA</b>			
Gizonak	47.845	46.474	-1.371
Emakumeak	62.953	61.305	-1.648
25 urtetik beherakoak	8.221	8.608	387
25 urte baino gehiago dutenak	102.577	99.171	-3.406
<b>EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA</b>			
Lehen arloa	2.179	2.079	-100
Industria	11.738	10.687	-1.051
Eraikuntza	6.428	6.282	-146
Zerbitzuak	77.420	75.456	-1.964
Lehenago lan egin dutenak	97.765	94.504	-3.261
Lehenago lan egin ez dutenak	13.033	13.275	242
<b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK</b>			
Langabe atzerritarrak	18.682	19.837	1.155


Iturria: SEPE.

# INFLAZIOA

## Inflazioa %3,4ra jaitsi zen azaroan

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadin, INEk argitaratutako azken datuen arabera, inflazio tasa % 3,4koa izan zen azaroan, aurreko hilean jasotakoa baino hamarren bat txikiagoa. Gasaren eta erregaien prezioa merkatzeak eragin zuen KPIa moteltze hori, baita elikagaien prezioak urtebete lehenago baino gutxiago igo izanak ere.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko azaroa
Inflazio osoa	3,1	8,1	3,4
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	4,8
- Elikagai landuak	1,4	10,2	9,4
- Industria ondasunak	1,0	4,7	2,4
- Zerbitzuak	0,7	3,3	4,3
Hondar inflazioa	12,1	20,0	-2,8
- Landu gabeko janariak	2,6	10,8	7,5
- Energia	21,3	28,2	-10,8


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Elikagaien prezioek apaltzeko zantzu garbiak erakutsi dituzte, eta berretsi egin dute bi digitu-ko tasetatik beherako igoerak izan dituztela. Hain zuzen ere, %8,9 garestitu ziren urte batetik bestera, oliba olioak gidatuta, beste behin ere. Talde hori zergatik bihurtu zen inflazionistena azaltzen duten faktoreen artean, lehortea eta klimatologia txarra aipatu behar dira, uztak eta

## TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



eskaintza nabarmen murriztu baitzituzten, eta horri ongarrien kostu handia gehitu behar zaio. Kontrako noranzkoan, etxebizitza taldea nabarmentzen da, aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen talde bakarra izan baitzen (-%6,3), elektrizitatearen prezioek lagunduta. Halaber, garraioarena (%0,5) aipatu behar da, erregaien beheranzko bilakaerak eraginda.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko azaroa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,4</b>	<b>3,2</b>	<b>2,4</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	8,9	9,0	6,9
Edari alkoholodunak eta tabakoa	7,3	7,1	6,9
Jantziak eta oinetakoak	1,0	2,2	2,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-6,3	-5,7	-5,5
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	3,7	2,7	3,2
Osasuna	2,1	2,1	2,9
Garraioa	0,5	0,0	0,8
Komunikazioak	3,4	3,3	-0,4
Aisia eta kultura	2,5	2,5	4,0
Hezkuntza	2,2	2,8	3,9
Jatetxeak eta hotelak	6,2	6,1	6,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,8	4,2	4,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.


# FAMILIEN KONFIANTZA

## EAEko familien konfiantza apur bat hobetu zen aurtengo amaieran

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2023ko 4. HIRUHILEKOA

- 9



2023ko laugarren hiruhilekoan, EAEko familiek nolabaiteko ezkortasuna erakusten jarraitu zuten, nahiz eta hobekuntza txiki bat nabari den aurreko hiruhilekoaren aldean. Orobat, urteko batez bestekoan, 2023an erregistratutako datua (-9) aurreko urtekoa (-11) baino pixka bat hobea da; izan ere, iaz energia prezioen igoera handiak familien erosteko ahalmenari eta konfiantzari eragin zien.


Inguruko herrialdeekin alderatuta, ekonomia nagusiek EAEkoaren antzeko egoera eta bilakera erakusten dute; urteko batez besteko balihoa aurrekoa baino zertxobait hobea da, eta oraindik nolabaiteko ezkortasuna adierazten duen saldoa jaso dute. Zehazki, EAEko -9aren aldean, Estatuko datua -20koa da, Frantziakoa -15ekoa, Alemaniakoa -16koa eta, azkenik, Europar Batasunekoa -18koa.

### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


	2021	2022	2022		2023			
			III	IV	I	II	III	IV
<b>Euskadi</b>	<b>-11</b>	<b>-9</b>	<b>-22</b>	<b>-23</b>	<b>-9</b>	<b>-7</b>	<b>-13</b>	<b>-9</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>-23</b>	<b>-19</b>	<b>-27</b>	<b>-26</b>	<b>-21</b>	<b>-18</b>	<b>-17</b>	<b>-18</b>
Frantzia	-18	-17	-23	-20	-21	-17	-15	-15
Alemania	-20	-15	-21	-25	-17	-13	-15	-16
Espainia	-26	-19	-33	-28	-23	-19	-13	-20



## EKONOMIA OROKORRA




## FAMILIAREN EKONOMIA




Adierazlearen lau osagaietan hautematen da EAEko familien konfiantza zertxobait hobetu dela. Hain zuzen ere, ekonomia orokorrari buruzko pertzepzioak txarra izaten jarraitzen du, baina ez aurreko hiruhilekoan bezainbeste. Familiaren ia erdiek uste dute ekonomiak okerrera egingo duela datozen hamabi hilabeteetan, eta soilik %15,8k uste dute hobera egingo duela. Heren batek baino gehixeagok uste du berdin mantenduko dela.

Enpleguari buruzko igurikimenak baikorragoak dira; izan ere, familien iritziz, haien bilakaera aurtengoaren antzekoa izango da. Gainera, familiaren ekonomiaren egoerari buruzko aurreikuspenak nabarmen hobetu dira laugarren hiruhilekoan, eta aurtengo batez besteko balantzea 2022koa baino hobea izan da. Azkenik, aurrezteko gaitasuna hobetu egin da, 2024an aurretuko dutela uste duten familien kopuruak gora egin duelako.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.



# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## EAEko enpresak ezkorrak dira 2024. urteari begira

### ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA.

EUSKADI

2024ko 1. HIRUHILEKOA

45,9




Laboral Kutxaren arabera, EAEko enpresen konfiantza indizeak okerrera egin zuen hurrengo seihilekoari buruzko ikuspegian, hots, 2024ko lehen erdiari dagokiona. Adierazle hori 3,5 puntu baino gehixeago jaitsi zen eta azken bost hiruhilekoetako baxuena izan zen. Banketxearen arabera, jardueraren jaitsiera Espainian (46,3 azaroan) eta eurogunean (44,2 azaroan) izandakoaren antzekoa da.

Konfiantza indizea osatzen duten atal gehienek okerrera egin zuten azken hiruhilekoan. Izan ere, fakturazioari buruzko aurreikuspenak zazpi puntu jaitsi ziren 46,8ra arte. Enpresen %18,9k soilik uste du handitu egingo dela, eta %25,2k uste du okerrera egingo duela. Jarduerak antzeko aurreikuspenak ditu: enpresen %30,6k jaitsiera aurreikusten du hurrengo seihilekoan, eta %9,9k soilik espero du hobekuntza.


### FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




### JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




## ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




## PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



## ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK

Indizea




Errentagarritasunari buruzko erantzunak aurreko aldiekin alderatuta hobetu diren bakanetakoak dira, saldoa 44,1 puntutan geratzen den arren. Enpresen %13,5ek uste du errentagarritasuna handitu egingo dela datorren urteko lehen seihilekoan, eta %25,2k, berriz, uste du murriztu egingo dela. Gainontzekoek (%61,3) uste dute egingo mailari eutsiko diola.

Enpleguaren arloan, EAEko enpresa gehienek (%81,5) egungo plantillei eustea aurreikusten dute; %12,6k, berriz, murriztu egingo dutela uste dute, eta %5,9k baino ez dute uste langile kopurua handitzea. Horrek 46,6 puntuko saldoa uzten du, aurreko datuen oso azpitik.


## ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK

Indizea



## INBERTSIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.



# PMI KONPOSATUA


## Euroaren eremuko PMI konposatua egonkor mantendu zen abenduan

Abenduan, euroaren eremuko PMI konposatuak ez zuen azaroan hasitako goranzko bidea finkatzea lortu, eta 47,6an egonkor mantendu zen. Horrela, adierazleak 50,0ko atalase kritikoaren azpitik jarraitu zuen zazpigarren hilabetez jarraian, eta horrek erakusten du eurogune osoan enpresen jardueraren beherakada neurritsua baina iraunkorra izan dela. Osagaien arabera, zerbitzuek igoera txiki bat izan zuten aurreko datuarekin alderatuta, baina bi sektoreek jarraitu zuten uzkurdura eremuan murgilduta.


Horren arrazoia izan zen jarduera mailak muga egin zirela urtearen amaieran, eskariaren baldintzak gehiago ahuldu zirelako. Aitzitik, enpresen konfiantzak hobera egin zuen, eskaera berrien beherakada motelena izan zen uztailaz geroztik (horrek ez zuen eragotzi enplegua berriro murriztea), eta kostuak eta izakinak murriztu ziren eskariaren presiorik ezaren aurrean, enpresei aukera emanez beren produktuen prezioa modu lehiakorragoan ezartzeko.

### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO ABENDUA  
47,6




### MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



## PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




## PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeka, euroguneko hiru ekonomia nagusiek lastatu zuten gehien eremuko jarduera ekonomikoa. Hain zuzen ere, Italiako PMIa 48,6an kokatu zen, Alemaniakoa 47,4an eta Frantziakoa, azkenik, 44,8an. Frantziako egoera zonalde osoko okerreña da, manufakturen PMIa erorketa librean baitago (42,1). Aitzitik, Espainiako PMI konposatuaren bilakaera nabarmentzekoa da (50,4), zerbitzuen sektorearen ibilbide onak bultzatutako hedapen eremua berreskuratu baitzuen (51,5).

Eurogunetik kanpo, konfiantzaren hobekuntza indar handiz sendotu zen Erresuma Batuan (52,1).

## PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA




## PMI KONPOSATUA. ITALIA



Iturria: Markit

## PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>6,0</b>	<b>5,4</b>	<b>4,8</b>	<b>3,4</b>	<b>2,3</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>
Barneko azken kontsumoa	5,2	6,0	6,2	4,4	1,9	1,5	1,1
Familien kontsumoa	5,8	7,7	8,0	5,1	1,7	1,3	1,5
Administrazioaren kontsumoa	3,2	0,7	0,8	2,2	2,4	2,0	-0,6
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	9,9	4,8	1,6	2,5	2,6
Barne eskaria	5,3	6,7	7,1	4,5	1,8	1,7	1,4
Esportazioak	10,7	17,1	16,8	8,6	6,3	-2,5	-0,6
Inportazioak	9,4	18,7	20,6	10,2	5,5	-2,0	-0,7
Lehen arloa	15,1	-8,7	-2,3	-7,3	2,1	-6,7	-2,3
Industria eta energia	5,3	4,7	3,1	2,4	1,1	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,0	6,7	9,0	6,0	0,9	4,2	2,9
Zerbitzuak	6,6	5,9	5,2	3,7	2,9	2,1	2,0
Balio erantsi gordina	6,1	5,5	4,9	3,4	2,4	1,5	1,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	4,6	4,2	3,1	1,6	1,3	1,6
Enplegua	2,7	2,8	2,3	1,8	1,5	1,5	1,6

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>1,7</b>	<b>1,4</b>	<b>1,7</b>	<b>1,5</b>	<b>1,7</b>	<b>2,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,1</b>
Barneko azken kontsumoa	2,2	1,4	<b>1,8</b>	1,6	0,9	1,7	2,4	<b>1,7</b>
Familien kontsumoa	2,5	1,5	<b>1,8</b>	1,6	0,6	1,9	2,7	<b>1,7</b>
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,0	<b>1,6</b>	1,6	1,9	1,0	1,7	<b>1,5</b>
Kapital eraketa gordina	4,6	2,2	<b>2,7</b>	1,8	3,8	5,5	5,9	<b>4,2</b>
Barne eskariaren ekarpena	3,3	1,3	<b>2,1</b>	1,3	1,5	3,0	3,7	<b>2,4</b>
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,5	0,1	<b>-0,3</b>	0,2	0,1	-0,7	-0,9	<b>-0,3</b>
Lehen arloa	-8,6	5,6	<b>-2,2</b>	6,3	7,8	5,3	5,9	<b>6,3</b>
Industria	2,6	1,5	<b>1,2</b>	1,5	1,6	2,2	0,7	<b>1,5</b>
Eraikuntza	0,7	0,0	<b>1,5</b>	0,9	2,0	2,7	3,1	<b>2,2</b>
Zerbitzuak	1,7	1,3	<b>2,0</b>	1,3	1,6	2,4	3,5	<b>2,2</b>
Balio erantsi gordina	1,8	1,3	<b>1,7</b>	1,4	1,6	2,4	2,9	<b>2,1</b>
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,6	<b>1,8</b>	2,3	1,7	1,5	2,9	<b>2,1</b>
Lanaldi osoko lanpostuak	1,1	1,2	<b>1,3</b>	1,3	1,1	1,8	2,1	<b>1,6</b>
Landunak (BJA)	0,8	0,5	<b>0,7</b>	0,8	0,4	0,8	1,2	<b>0,8</b>

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Ceprede	2,7	2,0	Laboral kutxa	1,7	1,4
BBVA	1,9	2,2	Confebask	1,6	1,6
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	1,6	Funcas	1,4	—

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>6,4</b>	<b>5,8</b>	<b>5,4</b>	<b>3,8</b>	<b>4,1</b>	<b>2,0</b>	<b>1,8</b>
Kontsumo pribatua	7,2	4,8	5,4	2,2	2,9	2,2	1,1
Kontsumo publikoa	3,4	-0,2	-0,6	1,6	1,8	4,4	4,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,8	2,4	4,0	-0,4	-0,3	1,5	0,2
- Aktibo finko materialak	1,7	2,1	3,9	-0,1	0,2	1,9	0,2
- Eraikuntzan	0,4	2,6	3,7	1,2	3,3	3,6	1,4
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	1,9	4,9	-2,0	-5,0	-1,5	-2,0
- Jabetza intelektualaren produktuak	7,7	3,8	4,6	-1,9	-2,6	-0,4	0,1
Nazio eskaria (ekarpena)	6,6	2,9	3,0	0,7	1,5	2,3	1,8
Esportazioak	13,5	15,2	12,9	8,7	9,3	-0,8	-2,3
Inportazioak	14,9	7,0	6,5	0,1	2,2	-0,2	-2,4

## BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
HSBC	2,5	1,1	Citigroup	2,3	0,5
CEOE	2,4	1,4	Capital Economics	2,3	0,9
UniCredit	2,4	1,3	Societe Generale CIB	2,3	0,9
Barclays	2,4	1,0	Grupo Santander	2,3	1,4
S&P Global Ratings	2,4	1,8	Fitch Ratings	2,3	1,7
FUNCAS	2,4	1,5	Repsol	2,3	1,6
La Caixa	2,4	1,4	Econ Intelligence Unit	2,3	1,2
CEPREDE	2,4	2,1	<b>Batez bestekoa</b>	<b>2,4</b>	<b>1,3</b>
UBS	2,4	1,5	Gobernua (2023-10)	2,4	2,0
Moody's Analytics	2,4	1,2	Espainiako Bankua (2023-10)	2,3	1,8
Oxford Economics	2,4	1,2	Europar Batzordea (2023-11)	2,4	1,7
BBVA	2,4	1,5	NDF (2023-10)	2,5	1,7
Goldman Sachs	2,4	1,5	ELGA (2023-11)	2,3	1,4

Iturria: Consensus Forecast.

# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	III
AEB	5,9	1,9	1,7	0,7	1,7	2,4	2,9
Txina	8,1	3,0	3,9	2,9	4,5	6,3	4,9
Japonia	2,1	1,0	1,5	0,6	2,5	2,3	1,6
Kanada	5,0	3,4	4,0	2,2	1,8	1,2	0,5
Europar Batasuna	6,0	3,4	2,6	1,7	1,1	0,5	0,0
Eurogunea	5,9	3,4	2,4	1,8	1,3	0,6	0,0
Alemania	3,2	1,8	1,2	0,8	-0,2	0,1	-0,4
Frantzia	6,4	2,5	1,3	0,8	0,9	1,2	0,6
Erresuma Batua	8,7	4,3	2,1	0,6	0,4	0,3	0,3
Italia	8,3	3,7	2,6	1,6	2,1	0,3	0,1
Herbehereak	6,2	4,3	3,1	3,1	2,1	-0,1	-0,6

Iturria: Eurostat eta ELGA.

## CONSENSUS FORECAST. 2023KO ABENDUA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	2,4	1,2	4,1	2,6	3,7	4,3
Japonia	1,7	0,9	3,2	2,3	2,6	2,5
Kanada	1,1	0,5	3,9	2,5	5,4	6,3
Europar Batasuna	0,5	0,9	6,0	2,8	—	—
Eurogunea	0,5	0,5	5,5	2,4	6,5	6,8
Alemania	-0,3	0,4	6,0	2,6	5,7	5,8
Frantzia	0,9	0,7	4,9	2,4	7,1	7,4
Erresuma Batua	0,5	0,3	7,4	3,1	4,2	4,7
Italia	0,7	0,5	5,9	2,2	7,7	7,8
Espainia	2,4	1,3	3,6	3,0	—	—
Herbehereak	0,3	0,6	4,0	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.